

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2012ko UZTAILAREN 5ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2012ko uztailaren 5ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.40 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

**ALKATEA:** Xabier Mujika Pagola

**ZINEGOTZIAK:** Gotzon Jauregi Sarasola  
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea  
Aritz Usandizaga Larrañaga  
Imanol Aranzabal Lasa


Bere ezin etorria azaltzen dute: Karlos Irazu Muñoa eta Jon Tejeria Otermin

**IDAZKARIA:** Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
  - 2012ko ekainaren 7an egindako ohiko bilkura
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Larraulgo herri ostatuko zerbitzu publikoaren ustiakuntzaren behin-behineko esleipena.**
- 4. Larraulgo Beobide Azpi baserrian dagoen telefonia mugikorreko antena baten obra legeztapena eta jarduera baimena eskaera, Vodafone.**
- 5. Larraulgo Olatza baserriaren lurretan dagoen pabiloia legeztatze baimen eskaera, J.B.S.C.I.**
- 6. Larraulgo Olatza baserriaren lurretan dagoen borda legeztatze baimen eskaera, J.B.S.C.I.**
- 7. Gure Ametsa 12-B etxe ondoan txabola bat egiteko obra baimena eskaera, E.A.O.**
- 8. 2013. Urterako Larraulgo jai eguna izendatzea, hala bada.**
- 9. 2011 ekitaldiko kontu orokorraren behin betiko onespena, hala bada.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

10. 2011-2012 ikasterterako Larraulgo herritarrei euskara ikastaroak burutzeko dirulaguntzak arautuko dituzten oinarriak onartzea, hala badagokio.
11. Larraulgo herri-bide batetik pinu-egurra ateratzeko baimena eskaera, J.E.A.
12. Fakturak eta ordainketak.
13. Beste batzuk.
14. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

### LEHENENGO PUNTUA

#### **ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.**

- ▣ 2012 urteko ekainaren 7ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

### BIGARREN PUNTUA

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

09/2012 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 19koa, Enplegu Planaren azterketa egiteko diru-laguntzaren eskabidea egiteko ardura Tolosako Udalari ematea eta Enplegu Planaren azterketaren lan teknikoa egiteko ardura Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentziari ematea, ebazten duena.


10/2012 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 22koa, Elutsa etxearen fatxada margotzeko obra baimena ematea G.J.S. jaunari, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira

### HIRUGARREN PUNTUA

#### **LARRAULGO HERRI OSTATUKO ZERBITZU PUBLIKOAREN USTIAKUNTZAREN BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENA**

Ikusirik 2012ko maiatzaren 10ean egindako Udalbatzarrean, Larraulgo herri ostatuaren errentamendu eta ustiapena, publizidade gabeko lehiaketa negoziatu bidez esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen pleguaren onarpena eman zitziola eta publizidade gabeko lehiaketa negoziatu deialdia onestu zela.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 2012ko maiatzaren 11an jendaurrean jarri zela Larraulgo herri ostatuaren errentamendu eta ustiapena, publicidade gabeko lehiaketa negoziaturako deialdia, non interesatuek, maiatzaren 31rarte, euren izenak, Larraulgo Udalean eman behar zituzten.

Ikusirik, goian aipatutako epean hiru interesatu aurkeztu zirela, ondorengoak direlarik: Y.P.; A.U. eta M.E.; M.I.

Ikusirik 2012ko ekainaren 1ean goian aipaturiko hiru interesatuei, gonbidatu zitzaizela Larraulgo Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapenaren lehiaketan parte hartzeko, 7 egun zituztela Larraulgo Udalean euren proposamenak aurkezteko, hau da ekainaren 11rarte.

Ikusirik 2012ko ekainaren 18an aurkezturiko hiru proposamenen B kartazala ireki zela, Kontratazio mahaiak dagokion baloraketa eginik Udalbatza honi esleipendun proposamena egin duelarik, hau da, Y.P. andreari Larraulgo herri ostatuaren errentamendu eta ustiapen kontratua esleitzearena, proposamen hau egokiena izateagatik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek , aho batez, ondorengoa,

### ERABAKITZEN DU:


LEHENA.-. Y.P. andreari Larraulgo Herri Ostatuaren errentamendua eta ustiapena behin-behinekoz esleitzea.

BIGARRENGOA: Y.P. andreari jakinarazi Larraulgo Udalean aurkeztu beharko dituztela, jakinarazpen hau jasotzen duen hurrengo egunetik hasita 15 eguneko epean ondorengo dokumentazioa:

- Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Larraulgo Udalarenak kitaturik dituela ziurtatzen duten dokumentuak (proposamenean aurkeztu ez bada).
- Baldintza-agiri honetan eskatutako gainerako dokumentu guztiak.
- Aseguru-poliza, baldintza-plegu honetan araututakoaren arabera.
- Behin betiko bermea osatua izanaren ziurtagiria.

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri esleipen honetara aurkeztutako interesdun guztiei ematea.

### LAUGARREN PUNTUA



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **LARRAULGO BEOBIDE AZPI BASERRIAN DAGOEN TELEFONIA MUGIKORREKO ANTENA BATEN OBRA LEGEZTAPENA ETA JARDUERA BAIMENA ESKAERA, VODAFONE.**

Ikusirik, VODAFONE ESPAÑA S.A.U.-k eginiko eskaera, non Larraulgo Beobide Azpi baserriaren teiltuan jarritako telefonia mugikorreko antena bat legeztatzeko obra baimena eta jarduera baimena eskaera egin duela.

Ikusirik, VODAFONE ESPALA S.A.U.-k eskaturiko jarduera baimena martxoak 9ko 165/1999 Dekretuaren bidez tramitatuko dela, zeina, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra, jasotzen den jarduerarako lizentzia eskuratzetik salbuetsitako jardueren zerrenda finkatzen duen.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: VODAFONE ESPAÑA S.A.U.-k Larraulgo Beobide Azpi baserriaren teiltuan telefonia mugikorreko antena bat jartzeko aurkezturiko jarduera baimenari hasiera ematea.

BIGARRENA: Aipaturiko dekretuan zehazten den modura tramitatu dadila espedientea. Ondorioz, jarduera kokatu behar den inguruko bizilagunei jakinaraziko zaie hamar eguneko epea dutela jarduera honen kontra erreklamazioak aurkezteko; aipaturiko epea amaiturik, eta erreklamazioak aztertutik, erreklamaziorik balego, jarri daitezela aparteko neurriak jardueraren funtzionamendu egokirako eta Udal Teknikariak ikuskaritza egin dezala ziurtatzeko aipaturiko neurriak jarri direla.


### **BOSTGARREN PUNTUA**

### **LARRAULGO OLATZA BASERRIAREN LURRETAN DAGOEN PABILOIA LEGEZTATZEKO BAIMEN ESKAERA, J.B.S.C.I.**

Ikusirik J.B.S.C.I. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Olatza baserriaren lurretan dagoen pabiloia legeztatzeko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Udal Aholkulari teknikoak, 2012ko ekainaren 18an eginiko txostenean dioena:

### ***“LARRAULGO OLATZA BASERRIAREN LURRETAN DAGOEN PABILOIA LEGEZTATZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA***



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*J.B.S.C.I. jaunak, Olatza baserriaren lurretan dagoen pabiloiaren legeztapena eskatzen du, eraikinaren egoeraren deskripzio-memoria eta planoak aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik ZERA ADIERAZTEN DUT:*

*Olatza pabiloia, Larraulgo lur ez-hiritargarran kokatzen da, bereziki Ipoligonoko 348 lursailean.*

*Aurkeztutako idatzian, abeltzaintzarako konplexuaren gaur egungo egoera jasotzen da, urteetan zehar egindako eranskinak barne daudelarik.*

*Instalazioa ukuilu-biltegi,txiza-putzu, estalpe eta silo batez osatua dago. Eraikin nagusiak 300m<sup>2</sup>-ko azalera eraikigarria du eta alboko eranskinak 90,90m<sup>2</sup>, oinplano okupazioa 390,90m<sup>2</sup> izanik.*

*Udaletxean dagoen espedientearen arabera pabiloi nagusia 1991-ean eraiki zen Jose Antonio Prieto Visedo nekazaritzako ingeniariak idatzitako proiektu bisatua jarraituz. Sustatzailea D.G. A. izan zen.*

*1995-ean ukuilu ondoan siloa egiteko udal baimena eskatu zen eta azkenik, 1998-an alboko eranskina.*

*Aurkeztutako dokumentazioak urteetan zehar egin diren lanak bateratzen ditu eta Larraulgo udaletxean dauden Olatzari buruzko espedienteekin bat egiten du.*

*Hau honela izanik, Olatza pabiloia eta inguruko eranskinak legeztagarriak direla iruditzen zait.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:


LEHENA: J.B.S.C.I. jaunak eskaturiko, Larraulgo Olatza baserriaren lurretan dagoen pabiloia legeztatze baimena eskaera onestea. Aurkeztutako dokumentazioaren arabera.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

### SEIGARREN PUNTUA

**LARRAULGO OLATZA BASERRIAREN LURRETAN DAGOEN ERAIKIN LAGUNTZAILEA LEGEZTATZEKO BAIMEN ESKAERA, J.B.S.C.I.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik J.B.S.C.I. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Olatza baserriaren lurretan dagoen eraikin laguntzailea legezatzeko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Udal Aholkulari teknikoak, 2012ko uztailaren 2an eginiko txostenean dioena:

### “LARRAULGO OLATZA BASERRIAREN LURRETAN DAGOEN ERAIKIN LAGUNTZAILEARI TXOSTENA

*J.B.S.C.I. jaunak, Olatza baserriaren lurretan dagoen eraikin laguntzailearen legeztapena eskatzen du, eraikinaren egoeraren deskripzio-memoria, argazkiak eta planoak aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik ZERA ADIERAZTEN DUT:*

*Olatza edo Olotzaga baserriaren eraikin laguntzailearen egitura, Larraulgo lur ez-hiritargarrian kokatzen da, bereziki 1 poligonoko 348 lursailean, eraikin nagusiaren ekialdera.*

*Aurkeztutako idatzian, zutik geratzen den egituraren gaur egungo egoera deskribatzen da.*

*Dokumentazioaren arabera, oinplano-okupazioa 104,65m<sup>2</sup>-koa da, paretaren zabalera 50zm-koa izanik. Eraikinak ez du barne egiturarik ez eta teilaturik. Harrizko kanpo paretan arrastoek, eraikinaren perfila 2 oinekoa zela azaltzen dute. Ekialdeko horma atala ia osorik mantentzen da, gailurreko altuera 6,50m-koa dela atzematen delarik.*

*Eraikinaren izateaz informatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko 1954 urteko argazki eta katastroko planoetan dagoela ziurtatzen da. Gainera, Olatza eta baserriaren inguruko egoera hobe ezagutzeko, 2011 urteko apirilean bisitaldi teknikoa egin zen.*


*Dokumentazio guziaz aztertu ondoren, Olatza baserriko eraikin laguntzailearen egiturak goian azaldutakoarekin bat egiten duela informatzen dut.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.B.S.C.I. jaunak eskaturiko, Larraulgo Olatza baserriaren lurretan dagoen eraikin laguntzailea legezatzeko baimena eskaera onestea. Aurkeztutako dokumentazioaren arabera.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

#### **GURE AMETSA 12-B ETXE ONDOAN TXABOLA BAT EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, E.A.O.**

Ikusirik E.A.O. eginiko eskaera, non Gure Ametsa 12-B etxe ondoan txabola bat egiteko obra baimena eskaera egiten duen. Horretarako krokis bat aurkezten du egin nahi duen txabolaren neurriarekin, materialarekin eta aurrekontu estimatu bat.

Ikusirik Larraulgo Arau Subsidiarioen arabera, lur hiritarrean 1,80 metroko altura baino gehiago duten eraikinak ezin direla egin, honek aprobetxamendu bat ematen duelako, jakinik, Gure Ametsa etxeak duen aprobetxamendu guztia agorturik dagoela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: E.A.O. jaunak eginiko baimena eskaera ukatzea, Gure Ametsa 12-B etxeak duen aprobetxamendua agorturik duelako.

BIGARRENA: E.A.O. jaunari erabaki honen berri ematea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

#### **2013. URTERAKO LARRAULGO JAI EGUNA IZENDATZEA, HALA BADA**

Ikusirik Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte gaietako Sailaren 75/2012, DEKRETUA, maiatzaren 15ekoa, Euskal Autonomi Erkidegoko langileen 2013 urteko jaiegun ofizialen egutegia onartzen duena.

Ikusirik egutegia osatzeko Udalek Tokiko Jai eguna proposatu beharra dutela.


Ikusirik Larraulgo jaiegun ofiziala abuztuak 3 San Esteban eguna izaten dela..

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2013 urterako Larraulgo Udalerriko jaiegun bezala ondorengoa finkatzea:

- Abuztuak 3 larunbata.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA.- Akordio honen berri ematea Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

#### **2011 EKITALDIKO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2011 ekitaldiko Larraulgo Udaleko Kontu Orokorra 15 lanegunez jende aurrean jarri dela, bere iragarkia Udaleko Iragarki Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, edonork aztertu eta egoki zituen alegazioak aurkeztu zitzaizkien.

Ikusirik 2012ko ekainaren 13an argitaratu dela iragarkia GAOn eta jendaurreko epea ireki dela 2012ko ekainaren 14tik ekainaren 30a bitartean, biak barne, ez delarik bere aurka inolako iradokizun zein erreklamaziorik aurkeztu.

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkariak Kontu Orokorrari buruz egin duen txostenean dioena.

Gaia aztertutik bertaratuek aho batez ondorengo,

**ERABAKITZEN DUTE**

LEHENA.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Ogasunen Aurrekontuari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorritik Larraulgo Udaleko 2011 ekitaldiko Kontu Orokorrari behin betiko onespena ematea.

BIGARRENA.- Akordio honen berri Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea.

### **HAMARGARREN PUNTUA**


#### **2011-2012 IKASTURTERAKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

Alkate-Lehendakari jaunak eskaturik Udaleko Idazkari-Kontuhartzaile andereak 2011-2012 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta bertan jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrien zirriborroa prestatu du.

Zirriborroa banatu ondoren eta gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez

**ERABAKITZEN DU:**





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENGOA.- 2011-2012 ikasterterako Larraulgo biztanleentzat eta Larraulgo udalerrian jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzak euskara ikastaroak burutzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea.

BIGARRENGOA.- Aipaturiko deialdia jendaurrean jartzea.

### HAMAIKAGARREN PUNTUA

#### **LARRAULGO HERRI-BIDE BATETIK PINU-EGURRA ATERATZEKO BAIMENA ESKAERA, J.E.A.**

Ikusirik J.E.A. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Larrunbide, Larrunbide-Etxeberri eta Goieneta alde mendi inguruan dagoen herri bidea erabiltzeko baimena eskaera egiten duen, egurra atera behar duelako.

Ikusirik 2010eko uztailaren 29an egindako Udalbatzak harturiko erabakia, non Udal jabetzako landa bide eta pisten erabilera berezia erregulatzen duen araudia onartu zen, honen arabera, pinuak ateratzeko baimena ematearekin batera, baimena eskatzaileei, herribideetan sor ditzazketen kalteez erantzutearren berme bat jartzea eskatzea onestu zela.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.E.A. jaunari Larraulgo Larrunbide, Larrunbide-Etxeberri eta Goienetxe alde mendi inguruan dagoen herri bidea erabiltzeko baimena ematea, betiere lan hauek egiten hasi aurretik, Larraulgo Udaletxean 1.450,00 eurotako fidantza jarri beharko duelarik, herri bidean gerta daitezken kalteei aurre egiteko.


BIGARRENA: J.E.A. jaunari erabaki honen berri ematea.

### HAMABIGARREN PUNTUA

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

UROLA	244,85
JON TEJERIA OTERMIN	180,00
IZFE	384,11
IZFE	1.822,70
AITZOL	48,72
KIROLZER	127,20
BABESA SUZAI	71,51
EBA ERKIZIA BRION	757,16



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

GIPUZKOAKO URAK	3.513,30
KIROLZER	144,65
JOXAN ALTUNA	100,84
LASURTEGUI ATXEKI	300,90
PASKIN	2.195,98
MOVISTAR	18,00
MOVISTAR	20,47
MOVISTAR	90,72
MOVISTAR	107,34
GASNATURAL FENOSA	61,69
GASNATURAL FENOSA	213,42
GASNATURAL FENOSA	166,75
GASNATURAL FENOSA	108,23
GASNATURAL FENOSA	253,57
GASNATURAL FENOSA	325,22
GASNATURAL FENOSA	91,99
GASNATURAL FENOSA	46,82
GASNATURAL FENOSA	279,78
EUSKALTEL	199,67

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

### ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **11.875,59** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **HAMAIRUGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

### **HAMAL AUGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.20 orduak direnean Alkate orde jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA